

M-8: Zaintza duina guztiontzat, martxoaren 6an mobilizazioak



MARTXOAK 6

mobi liza zioak:

BILBO / 11:00etan Eusko Jaurlaritzatik
(Gran Vía 85)
IRUÑEA / 11:00etan CENetik
(C. del Dr. Huarte de San Juan, 3)



2023ko azaroaren 30ean lehen aldiz egin zen Euskal Herrian zaintza eskubide kolektiboaren aldeko Greba Feminista Orokorra; atzera-bueltarik gabeko urrats bat, Sistema zisheteropatriarkal kapitalista kolonial honetan zaintza krisiari aurre egin genion, eta zaintza sistema publiko komunitario baten alde borroka ziklo bat ireki genuen.

Borroka sindikal eta sozialaren bidez, zaintzen egungo antolamendu soziala eraldatzeko borrokan jarraitzen dugu: euskal zaintza sistema publiko eta komunitarioaren bidean, epe ertaineko erronka horretarantz urratsak ematen jarraitu ahal izateko aliantzak eta konpromisoak garatzen. Horregatik, martxoaren 6an, Greba Feminista Orokorrean egin genuen bezala, kaleak hartuko ditugu Bilbon eta Iruñean, eta patronala zein instituzioak interpelatuko ditugu.

BILBO - 11:00etan Eusko Jaurlaritzatik (Diego Lopez Haroko kale nagusia, 85).

IRUÑEA - 11:00etan CEN-etik (Huarte de San Juan kalea, 3).

Instituzioen arduragabekeria salatu nahi dugu, pribatizazioaren eta negozioaren eredian sakontzen jarraitzeko egindako hautuagatik eta oraindik ere zaintzaren eremuan dauden egoera prekario eta kolapsatuen erantzule egiteko neurririk hartu ez izanagatik. Izan ere, administrazioa da pribatizazioak iraun dezan bermeak jartzen dituen, enpresa pribatuak zaintza langileen pribatizazioaren erantzule diren bezala.

Guztiontzako zaintza duina lortzeko borrokan, negozioa amaitzeko, sistema garatzeko eta pribatizatutako zaintza langileon lan eta bizi baldintzak hobetzeko borrokan berresten gara.

Aldarrikapen horiek eremu sindikalean negoziazio kolektibora eramateko ardura hartu genuen

moduan, kaleetan eta agenda politikoan mantentzeko hautua ere egiten dugu. Bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintza sistema publiko eta komunitarioa aldarrikatzeko, zaintza publikoaren alde, borrokan jarraituko dugu.





BIZITZA DUINEN ALDE

Lanaldi murrizketa:
Soldata jaitsierarik gabe.
Modu progresiboan eta adierazgarrian.

- 1/ Bizitza bizigarriagoak egiteko.
- 2/ Gizonek ardurak hartu ditzaten, erantzunkidetasunez zaintza lanak banatzeko.
- 3/ Ez dadila izan instituzioek hartzen ez duten ardura, emakumeek zaintzarako denbora irabazteko.
- 4/ Trantsizio ekosozialaren bidean, lanak birbanatu.



ZAINTZA LANGILEEN BALDINTZA DUINEN ALDE!

PRIBATIZA-ZIOAREN KONTRA, PUBLIFIKAZIOA!



Zerbitzu publikoen pribatizazio gehiagorik ez! Orain arte pribatizatutakoa publikatu!

- 1/ Zerbitzuetan baliabideak jarri eta lurralde historikoen arteko oreka bermatzea.
- 2/ Ekiparazioa, baldintza berdinekin: zerbitzua, langileen baldintzak...

Ratioak jaitsi: Dekretuak berritu eta hobetu. Eguneratu eta baliabide gehiago jarritz ratioak jaisteko.

- 1/ Dekretua aldatzeko trantsizio bidean eskumenak dauden tokietan hobetzeko prozesuak ireki. Erabiltzaile zein langileen baldintzak hobetzeko.

Publikakaziorako bidean... Trantsizio gisa hitzarmenak hobetu eta ez daudenetan berriak egin. Lan hitzarmenen prebalentzia eta eskumena. Lurraldeen arteko desorekak saihestuz. Zerbitzu eta lan baldintzak hobetu.

- 1/ Lurraldeen arteko desorekak saihestuz
- 2/ Zerbitzu eta lan baldintzak hobetu

ZAINTZA LANAK BANATU!

Zaintza lanak banatzeko, erantzunkidetasunez: egungo egoeraz zapaltzailea betiketuko ez duten kontziliazioa, lizentzia eta baimenak... eraginkorrak guztiontzat.



HEZKUNTZA EREMU ESTRATEGIKO BEZALA:

- 1/ Berdintasun planak adostu, eguneratu eta garatu.
- 2/ Curriculumean Zaintza txertatu.
- 3/ Beharrezkoak diren baliabideak behar ditugu ikastetxe guztietan hezkidetzarako plan egonkor eta kalitatezkoak egiteko.



Zaintza lanen egoera irauli nahi badugu zalantzarik gabe konzienziazioa eta heziketa dira tresnarik eraginkorrenak, eta horretarako hezkuntza sistemaz baliatu behar gara.

Denon bizitzak erdigunera

#Zaintza
EskubideKolektiboa
#Derecho
ColectivoAlCuidado